

Museoen foru sareak bisitarien % 44,5i eutsi dio mugikortasun murrizketak gorabehera

Guztira, 55.657 bisitari joan dira 2020an Aldundiaren bost museoetako batera eta aztarnategi bietara

Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 12a. Guztira, 55.657 pertsonak bisitatu dituzte 2020an zehar foru sareko bost museoetako bat eta Iruña Veleiako eta Hoyako aztarnategiak, hau da, aurreko urtekoaren % 44,5, non 125.191 pertsonak bisitatu baitzituzten.

Begi-bistako arrazoiengatik, kontuan hartu behar da datuak 2019aren antzekoak direla urtarrilean eta otsailean (otsailean igoera bat izan bazen ere), martxoaren erdian eta apiril eta maiatz osoan itxita egon zirela, eta gainerako hilabeteetan mugikortasun murrizketek baldintzatu dituztela (bereziki garrantzitsua da nazioarteko turismorik egon ez izana). Horregatik, Ana del Val Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak "neurri batean onak" direla esan du. Arduradunaren esanetan, "litekeena da mugikortasun murrizketen testuinguruan guztiak erdigunean kokatuta egoteak arabar asko museoekin berriz topo egitea eragin izana".

- Fournier Karta Museoa eta Arkeologia Museoa barne hartzen dituen Bibat Museoari dagokionez, 2020an 20.988 bisita izan zituen, eta 2019an 57.264, hau da, % 36,6. Urtean bisita gehien izan zituen hilabetea abuztua izan zen (4.443 bisita), otsailean baino gehiago (4.169 bisita).
- Arte Ederren Museoak 11.284 bisitari izan zituen 2020an, eta 26.674 bisitari 2019an, hau da, % 42,3. Hilabeterik bisitatuena otsaila (3.469 bisita) eta urtarrila (2.431 bisita) izan ziren, eta pandemiarekin bizi izandako aldiari dagokionez, abendua (817 bisita) eta abuztua (798 bisita).
- Natur Zientzien Museoak 7.962 bisita izan zituen 2020an, eta 16.194 bisita 2019an, hau da, % 49,2. Hilabeterik bisitatuena otsaila (1.400) eta urtarrila (1.355) izan ziren, baina oso gertu egon zen abendua (1.087).
- Arma Museoak 9.437 bisita izan zituen 2020an, eta 16.426 bisita 2019an, hau da, % 57,4. Otsailak 2.584 izan zituen, urtarrilak 1.374. Oso parean egon ziren abuztua (921) eta abendua (823).
- Hoyako aztarnategiak 3.307 bisita izan zituen 2020an, eta 5.626, berriz, 2019an (% 58,8). Bitxia bada ere, bisita gehien izan zituen hiru hilabeteetan ez dira ez urtarrila ez otsaila (aire zabaleko aztarnategiak gutxi bisitatzen baitira neguan). Bisita gehien izan zituen hilabetea abuztua izan zen (989), ondoren uztaile (511) eta iraila (409). Otsailak 396 bisita izan zituen.

- Iruña Veleiako aztarnategiak 2.679 bisita izan zituen, eta 2019an 3007, hau da, % 89,1. Hoyan bezalaxe, bisita gehien izan zituen hilabetea abuztua izan zen (438), ondoren ekaina (367), azaroa (348) eta iraila (339). Otsailak 309 izan zituen.

Zenbaketa orokorrari dagokionez, bisita gehien izan zituen hilabetea otsaila izan zen argi eta garbi, 12.327 bisita izan baitzituen 2020an. Gorakada nabarmena izan da 2019ko datuekin alderatuta, 8.303 bisitarik bisitatu baitzituzten museoak. Ondoren, abuztua bigarrena da, 8.381 bisitarekin (baina 2019ko 12.945 bisitak baino gutxiago). Hirugarrenik, urtarrila, 8.319 bisitarekin (7.857 2019an). Ondoren, uztaila (5.478), abendua (4.548) eta iraila (4.220) daude.

Datu horiei Amarica Aretoarenak gehitu behar zaizkie; izan ere, 2019. urtearekin alderatuta, bisiten % 50ari eutsi dio, eta 2020an, guztira, 2.301 (aurrekoan 4.636 izan ziren). Hilabeterik bisitatuena urria izan zen, 538 bisitarekin.

Era berean, Varonatarren dorreak % 45,8 izan zuen 2020an, hau da, 2.257 bisita; 2019an, berriz, 4.924 bisita izan ziren. Hilabeterik bisitatuena abuztua izan zen, 787 bisitarekin.